

Modalitatea

Erdipresentziala, malgutasuna eskeintzeko ikasle guztiei, lan profesionala egiten dutenei eta bestelakoei. Modalitate erdipresentziala Masterraren irakasgai guztietan aplikatzen da, derrigorrezkoetan eta hautazkoetan, %50 eskola presen-tzialak eta %50 eskola ez-presentzialak (**klase egutegia kontsulta egiteko www.gezki.ehu.es**), derrigorrezko kanpo-praktiketan eta derrigorrezko master amaierako lanean izan ezik.

Onartua izateko betekizunak

Titulazioa: Gradua, Lizentziatura, Ingeniaritza edo Arkitectura. Espediente akademikoa, esperientzia profesionala, eta hizkuntzak ezagutu eta menperatzea, kontuan hartuko dira ikasleak hautatzeko orduan. Curriculumak, egiaztaturiko merituak, eta elkarriketa pertsonala izango dira, beharrezko titulazioarekin batera, onarpenerako baldintzak.

Doktoretzarako bidea

Masterrak **orientazio profesionala** daukan arren, aukera ematen du UPV/EHUko **“Garapenari buruzko Ikasketak”** Doktoretza Programa egiteko.

Antolatzailea:



Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia

Telefona: +34 943 01 7498

Fax: +34 943 01 7480

gezki@ehu.es www.gezki.ehu.es

Babestzaileak:



Laguntzaileak:



KONFEKOOP

Hirekin



Unibertsitate Master Ofiziala

GIZARTE EKONOMIA ETA EKONOMIA SOLIDARIOA

GEZKI

Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide
Kooperatiboaren Institututa

UPV/EHUko Titulu Ofiziala

www.gezki.ehu.es



Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioa Unibertsitate Masterra

Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioa Unibertsitate Masterra GEZKIk sustatu du (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua), Masterraren arduradun gisa. Master hau antolatudutenean artean UPV/EHUko beste organoak ondokoak izan dira: Hegoa Institutua, Lan-Harremanen Unibertsitate Eskola, Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola, Ekonomia Aplikatua I Saila, eta Enpresa Zuzenbidea Saila.

Euskal Herriko ezaugarri sozioekonomikoen erakusten digute bertan Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioak eduki duen tradizioa eta etorkizunerako duten ahalmena. Ezaguna den Mondragon esperientzia kooperatiboaz gain, errealitate ekonomikoak eta sozialak erakusten dute Euskal Herrian tinko sustatu eta hedatu direla bestelako ekonomia eredu bat –soziala, kooperatiboa eta solidarioa- bultzatzen duten lan ekimenak eta jarduera produktiboak. Izan ere, bestelako ekimen eta jarduera hauek ez dute erakusten ekonomia tradizionalak merkatuarekiko eta errentagarritasun pribatuarekiko duen erabateko menpekotasuna.

Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren alorrean kokatzen diren ekimenak ugaltzea espero da, eta, ez bairik gabe, ekimen horiek heziketa akademiko eta zientifiko sendoa duten profesionalak beharko dituzte, arlo ekonomiko horretako entitateetan aholkularitza eta kudeaketa lana egiteko (kooperatibak, lan-sozietateak, enpleguko zentru bereziak, gizarteratze enpresak, etab.).

Mikel Zurbano Irizar
Zuzendaria
Ekonomia Aplikatuko Irakasle Titularra
UPV/EHU

Egitaraua

ECTS Kredituak: 60

DERRIGORREZKO irakasgaiak

Irakasgaia	(ECTS) Kredituak
Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioa: teoria eta garapenak	6
Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioko entitateak	6
Esku-hartze publikoa eta Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioa	6
Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioko entitateen antolakuntza eta administrazioa	12
Kanpo-praktikak	9
Master amaierako lana	9

HAUTAZKO irakasgaiak (1) (2)

- (1) Ereduak eta esku-hartzeko Teknikak Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioan
- (2) Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioko Entitateen Kudeaketa

Irakasgaia	(ECTS) Kredituak
Gizarte esku-hartzeko baliabideak eta estrategiak (1)	3
Garapenerako lankidetzak eta Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioa (1)	3
Finantza etikoak (1)	3
Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioa Latinoamerikan (1)	3
Antolakuntzako etika Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioan (2)	3
Lan-harremanak Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioko entitateetan (2)	3
Gizarte erantzukizun korporatiboa Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioko entitateetan (2)	3
Lan-arriskuen prebentzioa Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioko entitateetan (2)	3

Lekua

Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola.

Oñati plaza, 1. 20018 Donostia

Irakasleak

UPV/EHU: Sofia ARANA, Baleren BAKAIKOA, Aitor BENGOTXEA, María Luz DE LA CAL, Mikel DE LA FUENTE, M^a Ángeles Díez, Ángel ELIAS, Ángel M^a ERRASTI, Enekoitz ETXEZARRETA, Luis GURIDI, Jorge GUTIÉRREZ, Koldo IRURZUN, Yolanda JUBETO, Mertxe LARRAÑAGA, Eider LARRAZABAL, Antxon MENDIZABAL, Jon MORANDEIRA, Juan Carlos PÉREZ DE MENDIGUREN, Annie PUYO, Marco A. RODRIGO, Maite URIARTE, Itziar Villafañez, Miguel Ángel ZUBIAURRE eta Mikel ZURBANO.

Mondragon Unibertsitatea: Ainhoa LARRAÑAGA eta Leire URIARTE.

Deustuko Unibertsitatea: Cristina DE LA CRUZ eta Peru SASIA.

Profesionalak: Carlos ASKUNZE, Jordi GARCÍA, Sylvia GAY, Santiago MERINO, Pablo MORATALLA, Ignacio PALACIO, José M^a PÉREZ DE URALDE, Marta SENZ eta Anabel YOLDI.

Entitate Laguntzaileak

KONFEKOOP (Euskadiko kooperatiben konfederazioa), **ASLE** (Euskadiko lan-sozietateen enpresa elkarteak), **EHLABE** (Euskal Herriko Lan Babestuen Elkarteak), **GIZATEA** (gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko enpresen elkarteak), **REAS** (Euskadiko Ekonomia alternatiboa eta ekonomia solidarioko sarea), eta **HIREKIN** (Euskadiko gizarte ekimeneko eta esku hartzeko entitateen elkarteak).